

Xedapen Orokorrak

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

2965

AGINDUA, 2007ko martxoaren 13koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuarena, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak eta Sail horri atxikitako Erakunde Autonomiadunak kudeatutako datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuak arautzen dituen Agindua aldatzen duena.

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 20.1 artikulua xedatzen duenaren arabera, Administrazio Publikoen fitxategiak Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion Egunkari ofizialean argitaraturiko xedapen orokor baten bidez baino ezin izango dira aldatu edo ezabatu. Artikulu horren beraren 3. atalean adierazita dagoenez, fitxategiak ezabatzeko ematen diren xedapenetan, fitxategi horiekin zer egingo den edo, hala badagokio, fitxategi horiek ezabatzeko hartzen diren aurreikuspenak ezarriko dira.

Hori oinarritzat hartuta, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren 2004ko urtarrilaren 8ko Aginduaren bitartez Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak eta Sail horri atxikitako Erakunde Autonomiadunak, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak (2004ko martxoaren 11ko 48. zenbakidun EHAA) kudeatutako datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuak arautu ziren.

Ondoren Eusko Jaurlaritzak Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko 2/2004 Legea onartu zuen otsailaren 25ean. Lege horren 4.1 artikulua arabera, fitxategia datxekion Saileko titularren aginduz sortu, aldatu eta ezabatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko fitxategiak; era berean, indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen aipamen guztiak hartu beharko ditu barnean agindu horrek, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da; halaber, honako hau aurreikusten du: xedapen orokorrak lantzeko aurreikusitakoa izango da Agindu hori lantzeko prozedura.

Urriaren 18ko 315/2005 Dekretuaren bitartez Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala ezarri zen. Egitura organiko eta funtzional berri horrek dakartzan antolamendu-arloko aldaketa eta egokitzapenekin, zenbait fitxategi ez-operatibo ezabatzeko premia sortu da, orduan zeuden bes-

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

2965

ORDEN de 13 de marzo de 2007, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se modifica la Orden por la que se regulan los ficheros automatizados con datos de carácter personal gestionados por el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social y el Organismo Autónomo adscrito al mismo.

La Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, establece en su artículo 20.1 que la creación, modificación o supresión de los ficheros de las Administraciones Públicas sólo podrá hacerse por medio de disposición general publicada en el Boletín Oficial del Estado o Diario oficial correspondiente. En el apartado 3 del mismo artículo se señala que en las disposiciones que se dicten para la supresión de los ficheros se establecerá el destino de los mismos o, en su caso, las previsiones que se adopten para su destrucción.

En base a ello, mediante Orden de 8 de enero de 2004, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, se regularon los ficheros automatizados con datos de carácter personal gestionados por el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social y el Organismo Autónomo adscrito al mismo, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laboral-Osalan (BOPV n.º 48, de 11 de marzo de 2004).

Posteriormente, el Parlamento Vasco aprobó la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos. Esta Ley establece en su artículo 4.1 que la creación, modificación, y supresión de ficheros de la Administración de la Comunidad Autónoma se realizará por orden del titular del departamento al que esté adscrito el fichero, la cual deberá contener todas las menciones exigidas por la legislación en vigor y será objeto de publicación en el Boletín Oficial del País Vasco; asimismo, prevé que el procedimiento de elaboración de la citada orden será el previsto para la elaboración de disposiciones de carácter general.

Mediante Decreto 315/2005, de 18 de octubre, se aprobó la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social. Esta nueva estructura orgánica y funcional, con las modificaciones y ajustes organizativos que la misma supone, ha hecho surgir la necesidad de proceder a eliminar al-

te fitxategiak bateratzekoa eta fitxategi pertsonal automatizatu berriak gaineratzekoa. Era berean, 2004ko urtarrilaren 8ko Agindua onartu zenetik igarotako denborak beharrezko egiten du agindu horretan bildutako hainbat fitxategi gaur egungo egoerara egokitzea, horiek aldatuz edo ezabatuz eta aplikazio informatiko berriak ezartzeak eragindako beste fitxategi batzuk gaineratuz.

Halaber, Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 18. artikulua Datuak Babesteko Erregistroa sortu zuen eta Lege horren aplikazio-eremuan barne hartutakoak joko dira bertan erregistratzeko fitxategitzat.

Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 2. artikulua ezartzen duenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Autonomoek Datuak Babesteko Euskal Agentziari jakinaraziko diote aldatzen edo ezabatzen diren datu pertsonaleko fitxategi guztien berri, Datuak Babesteko Erregistroan erregistra ditzaten, xedapena edo erabakia Datuak Babesteko Euskal Agentziaren zuzendariak emandako 2005eko uztailaren 21eko Ebazpenak (2005eko abuztuaren 31ko 165. zenbakidun EHAA) onartutako eredu normalizatuaren bitartez bidaliz.

Horren guztiaren arabera egokitzen hartu da 2004ko urtarrilaren 8ko Agindua aldatzea, I. eranskinean, II. eranskinean eta III. eranskinean hurrenez hurren adierazten diren fitxategiak sortuz, aldatuz eta ezabatuz.

Ondorioz, honako hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.— Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak eta Sail horri atxikitako Erakunde Autonomiadunak kudeatutako datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuak arautzen dituen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren 2004ko urtarrilaren 8ko Aginduari dagokionez:

1.— Agindu honetako I. eranskinean zerrendatu diren datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuak sortzen dira. Fitxategi horiek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren eta hari atxikitako Erakunde Autonomiadunaren gainerako fitxategi automatizatuak gaineratuko zaizkie.

2.— Agindu honetako II. eranskinean zerrendatu diren datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuak aldatzen dira.

3.— Agindu honetako III. eranskinean zerrendatu diren datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuak ezabatzen dira. Kasu horretan fitxategi bakoitzaren norakoa edo horiek ezabatzeko hartzen diren aurreikuspenak adieraziko dira.

gunos ficheros inoperativos, refundir otros existentes e incorporar nuevos ficheros automatizados de datos de carácter personal. Asimismo, el tiempo transcurrido desde la aprobación de la Orden de 8 de enero de 2004 hace necesario adecuar a la actualidad algunos de los ficheros existentes en ella, modificándolos o suprimiéndolos, y añadiendo otros que derivan de la implantación de aplicaciones informáticas nuevas.

Asimismo, el artículo 18 de la Ley del Parlamento Vasco 2/2004, de 25 de febrero, crea el Registro de Protección de Datos y establece que serán objeto de inscripción en el mismo los ficheros comprendidos dentro del ámbito de aplicación de dicha Ley.

El artículo 2 del Decreto 308/2005, de 18 de octubre, por el que se desarrolla la Ley del Parlamento Vasco 2/2004, establece que los Entes públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco notificarán a la Agencia Vasca de Protección de Datos toda creación, modificación o supresión de ficheros de datos de carácter personal, para su inscripción en el Registro de Protección de Datos, mediante el traslado de la disposición o acuerdo a través del modelo normalizado aprobado por Resolución de 21 de julio de 2005, del Director de la Agencia Vasca de Protección de Datos (BOPV 165, de 31 de agosto de 2005)

En función de todo ello se ha estimado conveniente proceder a la modificación de la Orden de 8 de enero de 2004, mediante la creación, modificación y supresión de los ficheros que figuran en el anexo I, anexo II y anexo III, respectivamente.

En su virtud,

DISPONGO:

Artículo único.— En relación a la Orden de 8 de enero de 2004, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se regulan los ficheros automatizados con datos de carácter personal gestionados por el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social y el Organismo Autónomo adscrito al mismo:

1.— Se crean los ficheros automatizados de datos de carácter personal que se relacionan en el anexo I de esta Orden, los cuales se incorporan al conjunto de ficheros automatizados con datos de carácter personal del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social y el Organismo Autónomo adscrito al mismo.

2.— Se modifican los ficheros automatizados de datos de carácter personal que se relacionan en el anexo II de esta Orden.

3.— Se suprimen los ficheros de datos de carácter personal que se relacionan en el anexo III de esta Orden, indicando para cada uno de ellos su destino o las previsiones para su destrucción.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailko Zerbitzu Zuzendaritzak jakinaraziko dio Agindu honetako eranskinetan bildutako datu pertsonalak dituzten fitxategien berri Datuak Babesteko Euskal Agentziari, xede horretarako ezarritako normalizatutako prozeduraren bitartez, fitxategi horiek Datuak Babesteko Euskal Agentziaren Datuak Babesteko Erregistroan erregistratzeko, aldatzeko edo ezabatzeko eta ondoren Datuak Babesteko Espainiako Agentzian sartzeko.

Bigarrena.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den egunaren biharamunean hasiko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko maiatzaren 13a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

Ale Gehigarri bereizian argitaratzen dira
aipaturiko eranskinak

Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA 2966

AGINDUA, 2007ko maiatzaren 17koa, Jaurlaritzaren lehendakariordearena, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askezetzeko deialdi publikoa ebazteko dena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c) artikuluan xedatutakoarekin bat, eta Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako lanpostu huts bat izendapen askezetzeko deialdia iragarri zuen Jaurlaritzaren lehendakariordearen 2007ko apirilaren 4ko Aginduko laugarren oinarriari jarraituta (2007ko apirilaren 24ko EHAA),

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— La Dirección de Servicios del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social procederá a la notificación a la Agencia Vasca de Protección de Datos de los ficheros de datos de carácter personal contenido en los anexos a la presente Orden, mediante el procedimiento normalizado establecido al efecto, con el fin de su inscripción, modificación y cancelación en el Registro de Protección de Datos de la Agencia Vasca de Protección de Datos y su posterior integración en el Registro de la Agencia Española de Protección de Datos.

Segunda.— La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de marzo de 2007.

EL Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

En Suplemento aparte se publican
los anexos que se citan

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO 2966

ORDEN de 17 de mayo de 2007, de la Vicepresidenta del Gobierno, por la que se resuelve la convocatoria para la provisión, por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo vacante en la Vicepresidencia del Gobierno.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 46.2.c) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca y en la base cuarta de la Orden de 4 de abril de 2007 (BOPV de 24 de abril de 2007), de la Vicepresidenta del Gobierno, por la que se anuncia la convocatoria para la provisión, por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo vacante en la Vicepresidencia del Gobierno,